

ETXEBIZITZA-ERAIKINETAKO EGITURA-ELEMENTUAK KONPONTZEKO DIRU LAGUNTZETARAKO DEIALDIA - 2021

Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Sailak bere egitekoen artean izendatua du, besteak beste, zaintzea ezen titularitate pribatuko eraikinak behar bezala artatuta daudela segurtasunaren, osasungarritasunaren eta apainduraren arloan hirigintzari buruzko legerian aurreikusitako baldintzen arabera.

Sarritan, eraikitako parkearen antzinatasunaren ondorioz, eraikinei eusteko egituraren kalteak atzematen dira. Kalte horiek konpontzea oso garestia izaten da, lanen zailtasunagatik eta patologia-motagatik, batzuetan eraikin osoari eragiten baitiete.

Kalteen jatorria era askotakoa izaten da: eraikinaren zimenduak izan daitezke; eraikin akastuna izatea, materialen kalitate eskasagatik edo proiektuan akatsak egonik ez zelako behar bezala gauzatu; mantentze-lan egokiak ez egitearen ondorioz agertutakoak (hezetasunak...).

Horrelako patologiak are eta larriagoak izan daitezke oso zaila delako goiz antzematea, eraikinen egitura ezkutuan egoten direlako eta kalteak ez direlako agerian geratzen akaberetan edo itxituretan beste patologia batzuk eragin arte.

Nola eta eraikinaren elementu bateratuen egiturazko multzoaren osagaiak diren, oro har jabe-erkidegoak berak konpondu behar ditu. Edonola ere, batzuetan, forjatuko elementuak ordezkatu behar direnean (txarto dauden habexkak, esaterako), kaltetutako etxebizitzako edo lokaleko jabeak konpondu behar ditu.

Laguntza hauek bizitegi-eraikinetan gauzatutako jardunetarako dira, ez bestetarako, eta, hala, laguntzen xedea da partikularrei obrak finantzatzen laguntzea, aparteko gastu handiak ekarri oh dituztelako, haien etxebizitzetan eragina duelako eta, lesioen ezaugarriak eta segurtasunean duten eragina kontuan hartuta, ezin direlako atzeratu edo geroratu. Premiazkoak eta garestiak izaten dira.

Laguntza hauen xedeen artean sartzen dira: teilatuko edo forjatuetako habexkak ordezkatzeko, askotan, eremu hezeen azpian egonda, andeatuta egoten dira-eta. eraikinetako habeak eta zutabeak konpondu beharra, hala behar dutenean edozein kausa dela eta (hezetasunak, gainkargak, lanak egiteko orduko akatsak, armaduren korrosioa, eta abar...); zimenduak finkatu beharra lursailetan garbikuziak egin direnean, maila freatikoa aldaketak izan direlako edo beste kausa batzuk tarteko.

Era berean, programa honetan jasotzen da, orobat, egitura-elementu kaltetuak konpondu beharra eusten duen elementua, forjatua, ataria eta abar erabat konpondu arte. Egitura-elementuen gaineko jardun horietan ez da diruz laguntzekoa kontserbazio-eta apaindura-betebeharrak betetzeko aldatu beharreko akaberak aldatzea.

Aurreko urtearen ildotik, jasotzen dira, ordea, dirulaguntza berezi batzuk higiezinaren egiturari kaltea eragin ahal dien terminen ondoriozko patologien kasuetarako. Kasu horietan, izurriteak oro hartzen duelako, beharrezkoa izaten da lan bereziak egitea eta hainbat higiezin eragitea, eta, hori dela eta, aldi bereko tratamenduak edo esku-hartzeak behar izatea higiezin horietan guztietan. Hala, bada, esku-hartze horiek sustatzeko,

hainbat ugazaba-erkidegoren arteko adostasuna behar izaten baita, dirulaguntzak emango dira kata, tratamendu kimiko, arkitekturazko esku-hartze eta mantentze-neurrien bidez egin beharrekoak diren azterlanetarako.

Gainera, termiten eta beste intsektu batzuen ondorioz horrela jardun beharra dagoenean, kasurik gehienetan eraikuntza-elementuei eragiten zaie, zeintzuk, nahiz eta ez izan erabat egiturazkoak, kendu egin behar izaten baitira izurritea erabat ezabatuko bada, eta, hori dela eta, dirulaguntzak emango dira kaltetutako zurezko eraikuntza-elementu ez-egiturazko horietarako.

Kasu horietan, gainera, finka-administratzaileen zerbitzu profesionalak kontratatzeko diru-laguntza emango da, ugazaba-erkidegoen kudeaketa erraztearren, betiere Udalak kudeatzen duen poltsaren bidez kontratatzen badira, haietan Surbisak emandako prestakuntza-ikastaro bat gainditu duten profesionalak sartzen baitira.

Era berean, termitek edo beste intsektu batzuek erasandako higiezineta egiturazko elementuak konpontzearen akaberak ordezteko lanak egin behar badira, horiek ere lagunduko dira diruz.

Horretarako, ekitaldi honetan, Udalbatzak 2021. urterako aurrekontuetan zuzkitu du programa honetarako 160.000 euroko kreditua. Hala ere, hasiera batean 75.000 euro emango dira deialdi honetarako, aurrekontu-kreditu horretara arte luza daitezkeenak, beharrezkoa izanez gero.

Bestetik, 3/2015 Legeak (ekainaren 18koa, Etxebizitzari buruzkoa) 52. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, batez ere bizitegi-erabilerakoak diren eraikinak unean-unean eskatutako kalitate-eskakizunei egokitzen zaizkiela egiaztatzeko, teknikari eskudunek behar beste ikuskapen tekniko egin beharko dituzte, eta arauz zehaztutako antzinatasuna duten bizitegi-higiezineta ugazaba-erkidegoek Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EAT) egin beharko dute.

Beste alde batetik, Higiezinak Zaintzeko, Konpontzeko eta Zaharberritzeko Ordenantzaren 4. xedapen gehigarriak ezartzen du ezen, indarreko arautegiarekin bat etorriz, eraikinaren jabeak kontserbaziorako, irisgarritasunerako edo eraginkortasun energetikorako diru-laguntza eskatzen dionean administrazioari, Eraikinen Ikuskapen Teknikoa aurkeztu beharko duela, ordenantza horren III. kapituluan eraikinen ikuskapen teknikoari buruz ezarritakoa betez.

Horren ondorioz, Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren txostena aurkeztu beharko da, eraikinaren antzinatasuna edonolakoa dela ere. Hartara, eraikin horietako egiturazko elementuen egoera hobetzeko Udalak emandako laguntzaren ordaina izango da onuradunak berak artapenerako zein zaharberrikuntzarako lehenengo neurri hori betetzea.

Diru-laguntzen kudeaketan, honako printzipio hauek bete beharko dira: publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eta, orobat, Administrazioak ezarritako helburuak betetzen eraginkorra izatea eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzean efizientea izatea.

1. ARTIKULUA. XEDEA

1.- Deialdi honen xedea da bizitegi-eraikinekin lotutako egiturazko elementuak — forjatuak, karga-horma, portikoak nahiz zimenduak — konpontzeko obrak finantzatzeko diru-laguntzak esleitzea.

Laguntzekoa izango da, orobat, kaltetutako egiturazko elementuak konpondu beharra harik eta elementu euslea, forjatua, portikoa... erabat konponduta egon arte.

Alabaina, ez dira diruz laguntzekoak izango egiturazko konponketa bera egin baino lehenagoko prebentziorako neurri osagarriak (behin-behineko zurkaiztea, esaterako), eta ezta ere akaberak ordeztzea artapen- eta apaindura-betebeharrak betetzeko.

2.- Deialdi honen xedea da, halaber, eraikinari edo haren inguruei eragiten dieten termiten eta beste intsektu batzuen izurriteak ezabatzeko lanetarako dirulaguntzak ematea.

Diruz lagunduko dira, hain zuzen: enpresa espezializatuak termiten kontra emandako tratamendua; eraikinaren egitura aztertzeako obrak (katak hastea); habeak, zutabeak eta forjatuak bezalako egiturazko elementuak konpontzeko eta/edo ordezteko lanak; zurezko eraikuntza-egitura termiten erasanak ordeztzea; akaberak ordezteko lanak, eraikuntza-elementuak konpondu behar izan direnean edo katak hasi direnean, betiere lehendik zeudenen antzeko akaberak emanez egiten badira lan horiek.

Termitak daudelako presaz jardun beharra dagoenean, segurtasunagatik egin beharreko behin-behineko zurkaizteak ere sar daitezke, betiere behar bezala justifikatzen badira txosten tekniko baten bidez.

Era berean, jardun horietan, diruz lagunduko da finka-administrazioako zerbitzu profesionalak kontratatzea, betiere Udalak emango duen poltsan sartuta badaude.

2. ARTIKULUA. EREMUA

Deialdi hau ezartzeko eremu geografikoa Bilboko udal-mugarte osoa izango da, Surbisak kudeatzen duen eremua izan ezik (Zapi Kaleak, Bilbo Zaharra, Trenbideko Langileen auzoa, Gurutze auzoa, Olabeaga, Zazpilanda, Iralako eremu hondatuak eta Irala historikoa), harako badira-eta laguntza-programa bereziak.

3. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Deialdi honetako diru-laguntzak arau hauen pean daude: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzko Orokorra, eta lege hori garatzeko Erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretu uztailaren 21ekoaren bidez onetsia; eta Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko entitate eta organismoek ematen dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak, 2016ko ekainaren 30ean Udalbatzarrak onetsitako ordenantza orokorraren bidez onetsiak (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2016ko uztailaren 20ko alean, 138. zenbakikoan).

4. ARTIKULUA. ONURADUNAK

1. Jarduna zein bizitegi-eraikinetan gauzatu den, haren jabe diren pertsona fisiko edo juridikoek eskatu ahal izango dute dirulaguntza, bai eta jabe-erkidegoek ere, elementu erkideetan egin bada; jabe-erkidegoak beren ekimenez edo Udalaren errekerimenduz jardun ahal izango dira.

2.- Era berean, baldin eta, ezinbestekak eraginda, hala nola eurijasa handiek, muna-urratuek, suteek eta abarrek, Udalak erabakitzen badu presaz jardutea ordezteko obrak

eginaraziz, kasu horretan ere jaso ahal izango dira diru-laguntza hauek, betiere jardun horien aurretik ez bada egon Udalaren eginarazte-agindurik jabeek bete gabe utzia.

4.- Ezingo dira onuradun izan 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan (38/2003 Legea, Dirulaguntzei buruzko Orokorra) ezarritako debekuren bat duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

2.- Eraikinaren antzinatasuna edozein dela ere, laguntza eskatu aurretik, Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren Txostena aurkeztu beharko da, Eusko Jaurlaritzak EITak kudeatzeko eta erregistratzeko gaitutako plataformaren bidez; bertara sartzeko esteka hau da: **<https://www.euskadi.eus/euskoregite>**

5. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1.- Diru-laguntzen onuradunek 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorra).

Dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretik, onuradunak bereziki egiaztatu behar du egunean dela zergak ordaintzeko betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan.

Ez da dirulaguntzaren ordainketa gauzatuko, baldin eta, hura izapidetzeko orduan, artean ere diru-laguntza eskatu duena ez badago egunean Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan eta zerga-betebeharretan.

2.- Arau-hauste penala izango da, Zigor Kodearen 308. artikuluaaren arabera:

- Administrazio publikoengandik 10.000€ euro baino gehiagoko dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzea, haiek eskuratzeko baldintzak faltsutuz edo haiek eskuratzea eragotziko luketen datuak ezkutatzuz.
- Administrazio publikoen funtsekin osorik edo zati batean ordaindutako jardun bat gauzatzean, funts horietatik 10.000€ euro baino gehiago erabiltzea bidegabeki, hau da, diru-laguntzek edo laguntzek izendatuta zuten xedeez bestelakoetarako.

6. ARTIKULUA. AURREKONTU-KREDITUAK

1.- Deialdiko dirulaguntzak Bilboko Udalak 2021eko ekitaldirako onetsitako aurrekontuaren 41020 15220 78099 PEP 2021/00186 diru-sailaren kargura finantzatzeko dira.

2.- Deialdi honetarako zenbatekoa HIRUROGEITA HAMABOST MILA (75.000€) eurokoa da.

3.- Diru-kopuru hori amaitutakoan, ez da laguntza gehiago emango harik eta aurrekontuan beste diru-hornidura bat baimendu arte; Bilboko Udalaren webgunean argitaratuko da hala gertatzen bada.

4.- Zenbat eskabide aurkezten diren, aukeran izango da aurrekontu-hornidura handitzea, beste deialdirik egin beharrik barik.

7. ARTIKULUA. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

1. - Egiturazko erreformak:

Laguntza ekonomikoa obraren benetako kostuaren ehuneko hogeita bosteko (% 25) diru-laguntza izango da, itzuli beharrik gabekoa, benetako kostu horretan sartzen direlarik obrarako emandako laguntza teknikoaren ordainsariak, baina betiere BEZa, tasak edo udal-zergak aparte. Honako hauek izango dira mugak:

- Diruz lagundu daitekeen jardunaren gutxieneko aurrekontua hiru mila (3.000) euro izango da.
- Laguntzaren gehienezko zenbatekoa zortzi mila (8.000) euro izango da eraikin bakoitzeko.

2. Termitek erasandako eraikinak:

2.1. Termiten-izurriteak ezabatu behar direnean eta haiek erasandako erakinak konpontzeko lanak egin behar direnean, 1.2 artikuluaaren aurreikusten den moduan, laguntza ekonomikoa izango da itzuli beharrik gabeko diru-laguntza bat, termiten kontrako tratamenduaren, katak hastearen, zurkaizte-lanen, egiturazko elementuak konpondu eta/edo ordeztzeko lanen eta zurezko eraikuntza-elementuak ordeztearen egiazko kostuaren ehuneko berrogeita hamar adinakoa (% 50), laguntza teknikoaren ordainsariak ere kostu horretan sartuta (BEZa eta udal-tasa eta -zergak aparte, ordea).

Laguntza hori, gehienez, hogeita bost mila euro (25.000) izango da eraikin bakoitzeko.

2.2. Eraikuntza-elementuak konpondu beharraren ondorioz edo katak hastearen ondorioz akaberak ordeztu behar izan badira, orduan, obretarako laguntza ekonomikoa egiazko kostuaren ehuneko berrogeita hamar izango da (% 50), BEZa eta udal-tasa eta -zergak aparte.

Laguntza hori, gehienez, bost mila euro (5.000) izango da eraikineko.

2.3. Finka-administrazioko zerbitzu profesionalak kontratatzeko laguntza ekonomikoa urtebeteko ordainsari profesionalen % 100 izango da, BEZa aparte.

Laguntza hori, gehienez, zortziehun euro (800) izango da eraikineko.

2.4. Laguntza ekonomiko horien urteko ordainketa partziala eskatu ahal izango da behin termiten kontrako tratamendua emandakoan eta eraikinaren egitura nola dagoen ikusteko lanak egindakoan (katak hastea).

Laguntza ekonomikoa, fase horretan, itzuli beharrik gabeko diru-laguntza bat izango da, lan horien eta dagozkien ordainsarien egiazko kostuaren ehuneko berrogeita hamarrekoa (% 50), BEZa eta udal-zergak aparte, eta, gehienez ere, hamabi mila eta bostehun euro ordainduko dira (12.500).

Ordainketa partzial hori diru-laguntzaren zenbateko osoaren kontura ordainduko da, alegia, obren eta ordainsari teknikoaren behin betiko likidazioaren arabera dagokiokeen diru-laguntzaren zenbateko osoaren kontura. Eraikinek atari bat edo sartzeko eskailera bat baino gehiago badituzte hainbat etxebizitzari zerbitzu ematen dietenak, atari edo eskailera bakoitza eraikin bat balitz bezala hartuko da diru-laguntza emateko orduan, betiere 2. apartatuan ezarritako mugak betez.

8. ARTIKULUA. BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN BATERAGARRIAK IZATEA

1.- Dirulaguntza hauek bateragarriak dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek ematen dituen Administrazioa edo erakunde publiko edo pribatua, den nazionala, Europar Batasuneko edo nazioartekoa.

2.- Nolanahi ere, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere gainditu diruz lagundutako jardunaren kostua, nahiz berak bakarrik, nahiz beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

9. ARTIKULUA. ESKABIDEAK

1.- **AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.** Diru-laguntzak eskuratu nahi dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek eskabidea aurkeztu behar dute lanak amaitutakoan. Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- a) Erantzukizun peko adierazpena, 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua onuradun izateko ezartzen dituen debekuetako batek ere eragiten ez diolako (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra). I. Eranskina
- b) Udalari nork bere borondatez emandako baimena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituenetz jakiteko datuak biltzeko. I. Eranskina
- c) Dirulaguntzak eskatzen dituenak ez badu aurkeztu aurreko apartatuan aipatzen den baimena edo Udalari ezinezkoa gertatu bazaio ziurtagiri horiek lortzea, egiaztagiria aurkeztu behar du, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituelakoa, tributuen arloko Administrazio eskudunak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emana abian den urte horretan.
- d) Obren behin betiko likidazioa, salbu eta dagoeneko lehenago aurkeztu bazaio Administrazio honi; egindako obren edo jardunen, ordainsari teknikoaren eta finka-administrazioari dagozkion ordainsarien jatorrizko ordainagiriak; prozedura amaitu ondoren, interesatuari bihurtuko zaizkio. Agiri horiek kontzeptuen arabera xeheki aurkeztu behar dira, halako moldez non berariaz geratuko den egiaztatuta diru-laguntzaren xede den aurrekontua.

Diru-laguntzaren ordainketa partziala eskatzen bada 7. artikularen 2.4 apartatuan ezarritakoaren arabera, ordainagiriak termitekin kontrako tratamenduari eta eraikinaren egitura aztertze lanei buruzkoak izan beharko dira (katak egitea).

- e) Termitekin kontrako tratamendua hainbat urtean zehar eman beharra gertatuz gero, jabe-erkidegoaren konpromisoa aurkeztu beharko da, tratamendu horri epe horretan jarraipena emango zaiolako.
- f) "Hartzekodunen fitxa" behar bezala beteta, eta banku-kontuaren titulartasuna justifikatzeko agiriak; eta, pertsona juridikoen kasuan, ordezkariaren NANaren eta ahalen kopia. II. eranskina. Eskatzaileak ez badu inoiz udalaren diru-laguntzarik edo Bilboko Udalaren beste ordainketarik jaso edozein

kontzepturengatik, eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan inskribatuta ez badago soilik aurkeztu beharko da.

Eskabidea behar bezala beteta ez badago edo aipatutako datu edo agirietakoren bat falta bazaio, entitate eskatzaileari 10 egun balioduneko epean hutsak zuzentzeko eskatuko zaio; hala egin ezean eskabidea bestelako izapiderik egin gabe artxibatuko dela ohartaraziko zaio.

2.- Eskaerak aurkeztu ahal izango dira:

- **EGOITZA ELEKTRONIKOA erabiliz, udalaren web orriaren bidez.** (Jabeen erkidegoen kasuan, erkidegoarena agertu behar da eskatzailearen IFK gisa)
- **ALDEZ AURRETIK HITZORDUA eskatuta udal-bulegoetan:**
 - Hiri Plangintzako Saileko erregistroa (San Agustin eraikina – Ernesto Erkoreka plaza 12) (Ernesto Erkoreka) 12
 - Barrutietako udaltegietako erregistroetan.

Eskabideak, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2915 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein sistemaren bidez bidali ahal izango dira.

3.- EPEA: Eskabideak aurkezteko epea hasiko da deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eta 2021eko azaroaren 15ean amaituko da. Informazio hori Udalaren webgunean ere egongo da eskura ([www.bilbao.eus/Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Saila](http://www.bilbao.eus/Obretako_Hiri_Plangintzako_eta_Proiektu_Estrategikoetako_Saila)).

10. ARTIKULUA. IZAPIDETZEA

1.- Deialdi honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoak eskuratzeko, obrek kasuan kasuko udal-lizentzia edo baimena eduki beharko dute, edo Udalak jabeen ordezkuzuzenean eginarazitako obrak izan beharko dira.

2.-Deialdi honen barruan sartzen dira, berriro eskabiderik egin beharrik gabe, deialdia egin aurretik aurkeztu eta oraindik ebatzi barik dauden eskabideak.

3.- Ezingo dute diru-laguntzarik jaso ordainagiriak edo, ordainketa partzialen kasuan, behin betiko likidazioak 2020ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoak dituzten obrak, salbu eta aurreko apartatuan jasotakoak.

11. ARTIKULUA. LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA ETA EBAZPENA

1.- Diru-laguntzetarako aurrekontu-kreditu hau 7. artikuluan ezarritako diru-laguntzaren zenbatekoaren arabera banatuko da deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten pertsona edo entitateen artean, eta aurrekontu-zuzkidura ahitu arte banatuko dira.

Eskaerak aurkeztu ahalako hurrenkeran ebatziko da diru-laguntzak eman edo ez.

2.- Prozedura izapidetzeko organo eskuduna Obretako Hiri Plangintzako Sailaren Aurrekontu, Kontratazio eta Informatizazio Sekzioa izango da.

Organo izapidegile horrek ebazpen-proposamena egingo du, ziurtatu ondoren ezen:

- Udal-ikuskaritzak txostena egin duela adieraziz ezen obrak amaituta daudela eta behar bezala gauzatu direla.

- Onuradunak Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren txostena aurkeztu duela,

- Onuraduna egunean dagoela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeaz den bezainbatean, eta ez duela zerga-arloko zorrik edo zehapenik Udalarekin — betearazpen-aldian dagoenik, esan nahi da—, salbu eta geroratuta edo zatituta badaude edo haien exekuzioa geldieran utzita badago.

3.- Gobernu Batzordeak edo hark eskuorde izendatutakoak ebatziko du prozedurari buruz.

Ebazteko eta interesdunei jakinarazteko gehienezko epea lau hilekoa izango da, eskaria aurkezten denetik hasita, behin deialdiaren laburpena argitaratutakoan.

Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehienezko epea igaro ondoren, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela jo ahal izango da.

Eskatutako dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpenarekin amaitzen da administrazio-bidea.

Ebazpenaren kontra, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzien epaitegien artean dagokionaren aurrean, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita.

4.-Prozedura izapidetzeko eta ebazteko egintzak banan-banako jakinarazpen bidez jakinaraziko dira.

12. ARTIKULUA. LAGUNTZA ORDAINTZEA

Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Saileko Ordezkaritzak diru-laguntza esleitu ordaintzeko ebazpena emango du, onuradunari ebazpen horren berri emango zaio eta Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan haren izenean dagoen bankuko kontuan diru-sarrera eginez ordainduko da.

13. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA

Diruz lagundu daitekeen jarduna gauzatu delako justifikazioa diru-laguntza eman baino lehen aurkeztuko da, justifikazio-kontu moduan.

Diruz lagundutako jardunaren eta onuradunen ezaugarrien arabera, justifikazio-kontuak honako hauek edukiko ditu:

- Obren azken likidazioa.
- Gauzatutako obren edo jardunen, ordainsari teknikoan eta finka-administrazioaren jatorrizko ordainagiriak.

- Jabeen erkidegoaren konpromisoa, termiten kontrako tratamenduari jarraipena emateko eragiteko behar duen denboran zehar.

14. ARTIKULUA. ESLEITUTAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Emandako diru-laguntza guztiak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean eta udalaren web orrian argitaratuko dira.

Bilbon, 2021eko otsailaren 10ean.

Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Saila

